

DIBERTSITATEA INTEGRATUZ, DANTZAREN ETA ARTEAREN MUGAK ZABALTZEN DIRA

Maidar Iantzi Goienetxe

Dantza integratuak muga sozialak zabaltzen ditu, baita desgaitasunari soilik erreparatzen dion begirada ere, sarri hitz zatar hori orban handi bat bezala hedatzen baita eta osorik tapatzen baititu pertsonak. Dantza eta dibertsitatea lotuz lor daitekeena handia dela erakusten dute ondorengo esperientziek.

Dantza eta dibertsitatearen inguruko EHUren Udako Ikastaroan denetarikoa esperientziak aditu eta ikusi ahal izan dira. Horietako bat Marisa Brugarolas Alarcon murtziarrarena da. Pozarren, aho zabalik daude Donostiako Miramar jauregian bildutako lagunak berari aditzen. “Nire aulkiak ez diezazula ikuskizuna estali”, dio kurtsoaren izenburuak. Hain zuzen ere, parte hartzaileetako batzuk gurpildun aulkian iristen ikusi ditugu; eta bertzeak ez. Batzuei gehiago kostatzen zaie solas egitea; bertzeei ez. Baina mahai ingurua hasterako konturatu gara bukatu dela “batzuk” eta “bertzeak” bereizte hori, denak primeran integratu dira-eta, dantzan ari direne-

Kresala eta Verdini dantza taldeak, Donostia erre zuteneko 200. urtemugan, 2013ko abuztuan. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

an egiten duten gisa, gurpildun aulkia, protesia eta makuluak ere ikuskizuna aberasten duten elementu bilakatu.

Terminologia argituz hasiko dugu artikulua. Brugarolasek erran duenez, aitzinera egin bada ere bide luzea gelditzen da. “Desgaitasun” hitza erabiltzen da oraindik, eta horren ordez “dibertsitate funtzional” erabil dezagun borrokan ari dira. Orain dela urte batzuk ulertzen zen muga funtzionalak zirela desgaitasuna eragiten zutenak, alegia, medikuntzaren ikuspuntutik begiratzen zen. 60ko hamarkadan eredu soziala sortu zen. Bertan, desgaitasuna traba sozialetatik zetorren. Gaur egun, eredu sozial berriak dio muga pertsonalak eta inguruko traba daudela.

«Dantza estigmatizatua egon da eta gorputzak estigmatizatu ditu. Oso gorputz zehatzak izan dira beti. Jende arruntak ere ez du lekuri izan bere barrenean». Hala agertu du Ruedapies diziplina desberdinak lotzen dituen proiektuaren zuzendariak. Bere iritziz, dibertsitate funtzionala duten pertsonak arte eszenikoetan eta zehazki dantzan integratzea-

ren ondorioz gorputz, pentsamendu eta irudi eredu berriak jaio dira. Sarrera horrek, era berean, bi bide dituen diskurtso bat sortu du: «Orain arte uste genuen norbere gorputza ezagutzeko modua zela dantza, baina dantzarentzat berarentzat ere onuragarria da, bere mugak zabaltzen direlako. Biak garatzen dira, gorputza eta dantza».


Dantza integratua gizarteratzearen paradigmen barrenean dago. Definizio hori ulertzeko jakin behar da arte inklusiboen barruan pertsona guztiak direla artearen partaide. Dantza integratua, hortaz, «pertsona guztientzat irekitzen den espazio bat da, beren aniztasunarekin, taldean ikasi eta sortzeko aukera izan dezaten». Hala, dibertsitateak ez du harresirik edo mugarik altxatzen. «Zuk ezin duzula arterik sortu pentsatzen badut ghetto bat sortzen ari naiz. Era berean, ezberdina ezezagun bihurtzen dena, gure munstro propioak proiektatzen eta fabrikatzen ditugu».

Horregatik dio Brugarolasek inklusioak artearen mugak zabaltzen dituela. Dantza integratuak kultura soziala sustatu nahi du, «beste beste bezala ikusteari uzteko hurbil izan behar baitugu. Horretarako taldeek mistoak izan behar dute». Dantzariak azpimarratu duen bertze gauza bat da dantza integratua artearen barrenean sartzen dela, eta ez terapian. «Terapiarekin erlazionatzen badugu ez diegu pertsona hauei artista izaten uzten. Beste gauza bat da eragin terapeutikoa izatea. Metodologia eta erremintak partekatzen badituzte ere, bi arlo dira, helburu ezberdinak dituztenak».

Gorputzaz berriz jabetzea funtsezkoa da dantza integratuan, mugak zabaltzen dituelako eta etengabe aldatzen doan identitatearen ideia ulertzen laguntzen duelako. «Gauza bat bakarra gara eta hori izango gara bizi osoan», pentsa dezakegu. Baina, koreografoak argitu duenez, ez da hala: identitatea une oro aldatzen doa eta denok gauza aunitz gara aldi berean. Planteamenduoi guztioi jarraituz jaio zen Ruedapies proiektua 2005ean.

RUEDAPIES PROIEKTUA

Dantza integratuaren Ruedapies egitasmoan dibertsitate funtzionala duten eta ez duten artistek hartzen dute parte, elkarrekin sortuz eta lengoia eszeniko berriak ikasiz. Hasierako urteetan leku fisiko zehatz batean garatu zen, Murtzian. Eta gero mugituz joan zen: Costa Rica,





Erroma, Malaga... izan ditu kokaleku. Gaur egun, espazioa aurkitzen duen lekura doa. Metodologia inklusiboak baliatzen ditu, hau da, dituzten baldintzak dituztela, taldearen parte diren guztiek sentitzen dute ikas dezaketela. Contact izeneko teknika erabiltzen dute, adibidez. «Honekin kontaktuaren bidez ikasten da. Bizi garen jendartean dena oso bisuala da eta irudia manipulatzeko erraza da –esplikatu du Brugarolasek mahaikide duen Xabier Madina kideari (Udako Ikastaroaren zuzendaria) eskua hartzen dion bitartean–. Kontaktuarekin, berriz, presio bat sentitzen dut, tenperatura bat, eta hori zailagoa da manipulatzeko». Erantsi duenez, gorputz bati begiratu eta “zaila” iruditzen ahal zaigu *a priori*, guretik desberdina delako, baina biontzako ezezagunak diren lurraldeetatik ikertzen hasten bagara errazagoa izanen da biontzat.

Ruedapiesen ez dute desberdintasuna ez estaltzen ez goratzen; lagundu egiten dute, zailtasuna aukera bilakatuz. Ezagutza eta beharra batzen dira, baita bizitzen ari direnari ze ahots eman nahi dioten erabakitze gaitasuna ere. Dantzarietako batek gorpildun aulkia erabiltzen du, baina ez beti, eta hori baliatuz, aulkiarekin jostatzen dira ikuskizun batean. Denen artean desmuntatzen dute eta berri-

Dantza eta dibertsitatea lotuz Donostiako Miramar jauregian egindako udako ikastaroa. Ezkerrean Xabier Madina zuzendaria eta eskuinean Marisa Brugarolas Ruedapien proiektuaren sortzailea. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

«Bizi garen jendartean dena oso bisuala da eta irudia manipulatzeko erraza da. Kontaktuarekin, berriz, presio bat sentitzen duzu, tenperatura bat, eta hori zailagoa da manipulatzeko», adierazi du Marisa Brugarolasek

«Gorputza dantzan hastean begiratzen baino gehiago entzuten ikasi beharko genuke, aurretiaz eraikitako irudirik edo irudi ezagunik espero gabe», aldarrikatu du dantza integratuaren gaineko tesia egin duen artistak

ro muntatu, baina era hagitik desberdinean, aulkia zerbait berria bihurtuz.

Etorkizunari begira proposamen batzuk luzatuz amaitu du murtziarrak hitzaldia, geroko solasaldiari leku eginez. Dantza ikasteko programa inklusiboak sortzea defendatu du, bertze herrialde batzuetan egiten den bezala, dantza integratuaren eta inklusiboaren balioa aitortuz, bai pentsamendu asoziatibo, emozionala eta originala sustatzeko, bai dibertsitatea bultzatzeko eta bai pertsona eta kolektiboen ahalduntzea indartzeko. Horrez gain, dantzan eta arte eszenikoetan dibertsitatea gehiago bultzatzea, dantzaren hezkuntza publiko eskuragarri bat sortzea eta konpainia bakoitzak bere

diskurtsoa sortzeko espazio propioa izatea proposatu du.

«Gorputza dantzan hastean begiratzen baino gehiago entzuten ikasi beharko genuke, aurretiaz eraikitako irudirik edo irudi ezagunik espero gabe», aldarrikatu du “Gorputz anitza. Dantza integratua inklusioan” tesia egin duen artistak.

Entzuleen txalo beroak isildu orduko mahaian lekua hartu dute solasaldia gidatuko duten lagunek. Xabier Madina Manterolak aurkeztu ditu (kurtsoaren zuzendaria, Kolorearekin Elkarte Artistikoaren sortzaileetakoa eta dantzaria).

MAHAI INGURU ABERATSA

Lehena Nagore Somoza Chamizo da, orain Katalunian bizi den gipuzkoarra. Dantza garaikidea eta aire-dantza egin ditu, hezkuntzan ere lanean ibili da eskoletan eta Kukai taldearen bidez Kolorearekin ezagutu eta esperientzia politik partekatuta ditu elkarteko kideekin. Saioa berari buruz mintzatzen hasi da eta kontatzen nola sortzen duen dinamika bat, beti inprobisazioa eskuetan. Taldea biltzen da, lagun bakoitza datorren lekutik dator, ez dute elkar ezagutzen, eta musikarekin arnasten hasten dira.

«Harritu izan naizenean nire harridura adierazi dut. ‘Goazen saltatzera’ esatean

«‘Nola saltatuko duzu zure aulkitik?’ galdetu izan dut. ‘Horrela’. ‘Horrela?’. Zalantzatik, pozetik, emozioetatik lan egin izan dugu. Denbora joan izan zaigu eta interesgarria izan da denontzat», deskribatu du Nagore Somozak

Dantza eta antzerkitik datorren lagun batek berretsi du hezkuntza dela oinarria. «Ohartu behar dugu norberari ez pasatzeak ez duela esan nahi ez digunik pikatzen. Bizitza hau guztia da. Hau normala da» azpimarratu du



‘nola saltatuko duzu zure aulkitik?’ galde-
tu izan dut. ‘Horrela’. ‘Horrela?’. Zalantza-
tik, pozetik, emozioetatik lan egin izan
dugu. Denbora joan izan zaigu konturatu
gabe eta interesgarria izan da denon-
tzat». Somozak gogoa duen jendearekin
egin nahi ditu gauzak, berdin du aulkian
egotea edo behatz bat gaizki edukitzea.

Nahia Iparragirre Burgoa Ondarroatik
dator. Intuiziotik eta arte eszenikoetatik.
Antzerkitik. Sortzetik. «Loreari –entzule-
en artean, lehendabiziko ilaran, dagoen
lagun bat– zeinuen hizkuntza erakusteko
eskatu nion, eta berak ‘bale, baina truke-
an zuk dantzatzen irakatsiko didazu’
esan zidan». Hala hasi ziren. Pieza txiki
bat sortu zuten bien artean eta Loreak,
Interneten gehiago ibiltzen denez, hala
bota zion behin Nahiari: «Badakizu egi-
ten dugun hau dantza integratua dela?». Gaian pixka bat barneratu orduko izan
zuten Marisa Brugarolasen berri. Bertze
lagun ugari ere ezagutu eta zur eta lur
gelditu ziren ezagutzen ez zuten mundu
bat deskubrituta.

Iparragirrek Haur Hezkuntza ikasi
zuen eta orain psikomotrizitatearekin ari
da. Aire-dantza ere egiten du. Azaldu
duenez, haurren komunikazio ahalmena

hobetzeko baliagarriak dira saltoak, bai-
na zer gertatzen da jauzi egin ezin dute-
nekin? Oihalekin eta aire-dantzarekin es-
perimentatzen dabil ondarroarra. «Talde
txikietan, aire-dantza erabiltzen dugu ji-
ratu eta kulunkatu ahal izateko eta hau-
rren aurpegia ikusita nirekiko esaten
dut: ‘hemen bada zerbait, meatze bat!’».

Esplikatu duenez, ordura arte umeok
garapen kognitiboa eta motorra lantzera
joan dira igerilekura edo behar den leku-
ra, baina lan bat bezala. Aire-dantzan egi-
ten dutena bertze zerbait da. Helduekin
ere lan egiten du klaseetan garapen mo-
torra landuz, baita pertsonala ere, haue-
kin ere talde txikietan bilduta. «Etortzen
direnean husteraz datoz», agertu du, eta
inklusihoa umezarotik hasteak duen ga-
rrantzia azpimarratu du.

PERTSONEN HOBERENA ATERATZEN DUTE
Mahaian eserita dagoen laugarren lagu-
na Leire Valero Madrid da. Irunen bizi da.
Fisioterapeuta da, Matia Fundazioko Iza
zentroko langilea. «Etxe bat da, diberts-
itate funtzionala duten 78 pertsona bizi
direna –hasi da kontatzen–. Espazio txiki
horretan elkarrekin ikasten dugu. Pertso-
nak dira zentroa, bakoitza bere indargu-

neekin. Hala guztiok batera zer egin de-
zakegun ikusten joaten gara».

Alabaren bidez hurbildu zen dantzara
Leire. Txikia zenean psikomotrizitate
arazoak izan zituen umeak. «Orain dela
hamabi urte izan zen, Irunen nengoen
eta ez zegoen ezer. Ainhua ezagutu nuen
orduan, dantzaria zen eta probatzea pro-
posatu zidan. Urte batean alabaren arazo
fisikoak desagertu egin ziren».

Gero Xabier Manterola eta Koloreare-
kin ezagutu zituen. Laguntzen hasi eta
beraiekin bizitzan ari da prozesua lehen
unetik. Eta, seguru-seguru, «Leire izena
dudan bezala», baieztatu du eragin tera-
peutiko zoragarriak ikusi dituela. Lehen
lerroan den Loreari buruz nabarmendu
du «crack bat» dela. Fisikoki eta ahalmen
motorrari dagokionez hobera egin du.
«Lehen ez zuen hitz egiten eta orain ez
da isiltzen!», gaineratu du irria eraginez.
Xabier Madinaz gauza bera erran du.
«Dantza bizi dute eta guk ere izugarri bi-
zitzea lortzen dute. Denok amaitu dugu
malkotan, pertsonen hoberena ateratzen
dutelako. Parte hartzea falta zait. Emango
dut pausoa», promes egin du.


Azalpenak bukatu eta ez dira bi segun-
do igaro aretoko jendea parte hartzen ha-


si arte. Galdera luzatzen lehena, Marisa
Brugarolas: «Nola hasten zarete, zirku-
luekin? Zirkuluetan ez da hainbesteko
mailakatzerik izaten».

Nagore Somozak jolasari eman dio ba-
linoa eta Nahia Iparragirrek hasi aitzinetik
jendeak izaten dituen zalantzak plazaratu
ditu. «Hori egiten ahalko dut?», galdetzen
diote eta berak «jakina baietz!». Eta hiru
egunetara lortu eta zoratzen jartzen dira.

DANTZA ETA HEZKUNTZA DESZENTRALIZATU
Herritik ateratzeari buruz ere mintzatu
dira. «Ni Katalunian nago Euskal Herriko
beka batengatik, baina ez dut kontaktua
galdu nahi izan. Kukairekin segitzen
dut», dio Somozak. Brugarolasek kontatu
du AEBetan bizi eta aunitz ikasi ondotik
berak ere bere herrian, Murtzian, mar-
txan jarri nahi izan zuela Ruedapies,
nahiz eta jakin bertze nonbait abiatuz ge-
ro, «hemen adibidez», bertze indar bat
hartuko zuela. «Ona da kanpotik elika-
tzea, baina hemen bada kasta, eta jada
bertan dagoenarengana hurbildu eta au-
kera ematea ongi dago», komentatu du
bertze kide batek.

Bestalde, norberak bere arlokoekin er-
lacionatzeko joera duela baina alor des-





berdinen interakzioa ikaragarri aberasgarria dela defendatu du bertze lagun batek: «Terapeuta okupazionalak egiten duena interesatzen zait, baita artistak egiten duena ere, eta psikomotrizistak, eta...». Zirkuluan lan egitearen ideari heldu dio berriro, berdinetik berdinerara, gorputzetik gorputzera, begiradatik begiradara bertze pertsonarekin, ez goitik, lurretik baizik.

Hari horri tiraka, dantza eta hezkuntza bera ere deszentralizatzea onuragarria litzatekeela aldarrikatu du Somoza: «Gure burua astindu eta ireki egin beharko genuke».

Dantzatik eta antzerkitik datorren bertze lagun batek berretsi du hezkuntza dela oinarria, umetatik etxean eta eskolan hasten dena. «Ohartu behar dugu norberari ez pasatzeak ez duela esan nahi ez digunik pikatzen. Bizitza hau guztia da. Hau normala da», azpimarratu du. Horrekin lotuta, gauzak sinpleago egitearen alde agertu da kide bat, eta pasarte bat kontatu du ideia hobeki ulertzeko: egun batean Downen sindromea duen mutil batek komentatu zion iloba bat zuela eta bera osaba zela, ez Downen sindromea duen osaba, baizik eta, sinpleki, osaba.

Ezkerrean, udako ikastaroko momentu bat, Marisa Brugarolasen hitzaldian, mahai ingurua hasi aurretik. Ondoko bi irudietan, Kresala eta Verdini dantza taldeen ikuskizuna Donostiako Paseo Berrian.

Andoni CANELLADA - Jagoba MANTEROLA | ARGAKZI PRESS

Solasaldia aitzinera doa, ideiaz ideia aberastuz. Halako batean honako ohartarazpena egin du lagun batek: «Guztion artean lana egiten goaz ahal dugun bezala, baina instituzioek ez badizkigute tresnak jartzen hormaren kontra egingo dugu txoke beti». Aretoan administrazioako ordezkariak baden galdetu, eta jakinarazi dute kurtsoaren irekieran egon direla baina dagoeneko alde eginak direla.

Denak ados agertu dira normalizazioa lortuko bada administrazioaren esku hartzeak aunitzez handiagoa izan beharko lukeela baieztatzean.

BAT-BATEAN, INKLUSIOA «GUAY» DA

«Bat-batean inklusioa *guay* da –erantsi du kide batek–. Eta administrazioa eta gu mahai berean hitz egiten ari bagara ere, ez gara gauza beraz ari. Baina bai, erremintak nahi ditut. Zubiak behar ditugula iruditzen zait», adierazi du inklusioan lanean berriki hasi den lagun batek.

Idea horri segituz, Iparragirrek feminismoarekin egin du alderaketa: «Administrazioak feminismoa lagun dezake, baina berak nahi duen bezala egin behar du?». Brugarolasek berretsi du instituzioei malguagoak izatea falta zaiela, mugimendu

sozialen gibeletik doazela beti eta hauei tokatzen zaiela «dinosaurio horiek» aldaraztea. 2003-2004an bere jaioterrira, Murtziara, itzultzea bururatu zitzaionean inklusioa ez zegoela «modan» oroitu du Brugarolasek. Kultura Sailera jo eta taldean dibertsitate funtzionala zuten lagunak zeudenez Gizarte Zerbitzuetara bidaltzen zuten. Baina hemen atea jo eta, kide guztiek dibertsitate funtzionala ez zuten, Kultura Sailera joateko eskatzen zioten. Arazoak arazo, baina, aurrera egin zuen: «2010-2012tik hasi zen eklosioa, baina inklusioa askoz lehenago hasi zen. Ongi etorri denok».

Gustura ari dira solasean, baina mahai-ingurua bukatu beharrean dira eta horretarako kurtsoaren izenburura bueltatu dira, «Nire aulkiak ez diezazula ikuskizuna estali», interes artistikoaz mintzatzeko. «Goazen espazioak sortzera artearekin komunikatzeko. Ondotik ikuskizun bat erakitzen ahalko dugu edo ez. Baina gorpila asmatzen saiatzea dagoeneko asmatua dagoenean ez da etikoa. Gauza bat da egin ez ditudan gauzak egitea eta beste bat artea egiteko erremintak izatea, eraikitze eta zerbait berria egiteko, desberdintzeko», esplikatu du Marisa Brugarolasek.